



Nazioarteko Elkartasuna  
Solidaridad Internacional

The background is a solid red color. Overlaid on this is a semi-transparent image of a woman with a long braid, seen from the side, manipulating a shadow puppet of a cow. The puppet is on a stick, and its shadow is cast onto a circular surface in the foreground. Another shadow puppet of a cow is visible in the background.

# Títeres de sombras para la Igualdad

Argitalpen hau Amurrio, Laudio eta Urrunagan egin diren Berdintasunaren aldeko Itzal txontxongiloak tailerren baitan egin da, tailer hauen dinamizatzailearen eskutik

**Ivan Erik Jamett**

Itzal txontxongiloak tailerraren dinamizatzailea



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

## Fulano zizarearen istoria

"Aspaldi ez dela... belardi zaharra amaitzen den tokian zizarea ikusten da, beti ametsetan eta kantuan doana, krisalida izateari uzten dionean eraldatzen dena...

izan ere, zizarea, irudimen handiko *bitxito* bat da"

## Eta horrela hasten da istoria

### Testuingurua

Berdintasunaren aldeko itzal txontxongiloak tailerrak "Tolerancia 0: Rompiendo con las desigualdades ante la discriminación y los estereotipos de género" proiektuaren baitan egin dira, Arabako Foru Aldundiak finantzatuta.

Hala, tailerrak Amurrion, Urrunagan eta Laudion parte hartu nahi zuten 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat izan dira. Programa ludikoa bi orduko lau saiotan garatu da, eta guztira zortzi ordu eman dira tailerren ziklo bakoitzeko, guztira 24 ordu izanez. Hauetan genero berdintasuna sustatzeko mekanismo gisa itzalen txontxongiloak erabiltzea proposatzen da.

### Helburua

- Itzal-txotxongiloen erabilera ludiko, sortzaile eta berritzailearen bidez, genero berdintasunaren inguruan sentsibilizazio eta sozializazio prozesu bat sortzea.
- Genero berdintasunaren inguruan hausnartzeko tresna teknikoak garatzea eta erabiltzea, giza garapenerako funtsezkoak diren sormena eta autoestima berresteko.

*"Txotxongiloak jolas bat, estalki bat, mozorro bat, ematen dio haurrari, eta horrek aukera ematen dio haur lotsati bati hitz egiteko, bere emozioak adierazteko eta bere iruditeria txotxongiloari eta haren bitartez, entzuleei, irekitzeko adorea izateko. Horrela, txotxongiloak haurrari modu espontaneoagoan komunikatzen laguntzen dio, egoera estresagarriak saihestuz; txotxongiloa haurrak berak sortu eta aukeratutako autoritatea da".*

Livija Kroflin 2015eko uztaila

## Metodologia

Berdintasunaren aldeko itzal txontxongiloak tailerrak planifikatu zirenean, edukiez, helburuez... hitz egin zen; arreta egokia emateko parte-hartzaile kopurua baloratu genuen; materialei buruz hitz egin genuen; baita txontxongiloak sortzeko eta erabiltzen ikasteko behar zen denbora kalkulatu ere. Hala, egunak irudimenak bezala egin zuten egan, denborak ez baitu prestaketetz ulertzen.

Tailerren metodologiari dagokionez, esperientzia horizontala eta parte-hartzailea izateko planifikatu zen. Parte-hartzaileek tresna teknikoak eta itzalen txotxongiloak eraikitzeko eta erabiltzeko trebetasunak eskuratuko zituzten. Horretarako, lana fase hauetan banatu zen:

### **1. fasea: Sarrera: tailerraren helburuak eta metodologia aurkeztea**

- Jardueraren aurkezpena eta sarrera.
- Zer da genero-ekitatea?
- Itzal-txotxongiloen lagin interaktibo bat egitea.

### **2. fasea: mahaiko lana**

- Genero-ekitatean oinarritutako testuak egitea eta pertsonaiak identifikatzea.
- Itzalen txotxongiloak egitea.
- Itzalen txotxongiloak erabiltzen ikastea.

### **3. fasea: Sortze-prozesuaren erakusketa**

- Sortutako txotxongiloen aurkezpena egitea.
- Prozesuan parte hartu dutenek sortutako txotxongiloen antzezlanak.

### **4. fasea: Parte-hartzaileek bizitako prozesuaren laburpena ematea**

- Jardueraren laburpen narratibo bat egitea.
- Bizitako prozesuaren memoria eta emaitzak entregatzea.

## Jardueren kronograma



### **Amurrio**

Irailak 18, 18:00etatik 20: 00etara  
Irailak 20, 18:00etatik 20:00etara  
Irailak 22, 18:00etatik 20:00etara  
Irailak 25, 18:00etatik 20:00etara

### **Laudio**

Urriak 25, 18:00etatik 20:00etara  
Urriak 26, 18:00etatik 20:00etara  
Urriak 27, 18:00etatik 20:00etara  
Urriak 30, 18:00etatik 20:00etara

### **Urrunaga**

Azaroak 4, 16:00etatik 20: 00etara  
Azaroak 5, 10:00etatik 14: 00etara

## **"Itzalek ez dute generorik"**

Antzerkia, funtsean, artea da, jolasa, etengabe mugitzen ari den unibertsoa ere bada; txotxongiloak unibertso honetakoak dira, jolas honetakoak: Itzalen txotxongiloak antzinarotik existitzen dira, eta betidanik paper garrantzitsua jokatu dute zibilizazioen historian. Txotxongiloak kultu animista primitiboekin daude bereziki lotuta, "unibertsoan dena arima baten eramailea dela uste baitute, eta, horrekin, sentimenduak, desirak eta baita adimena ere". Hala, txotxongiloa ez da objektu bat bakarrik, edo panpina bat martxan. "Emozioa da, sentimendua, mezuaren bidez transmititzen duguna.

Itzalen antzerkia efektu optiko teatralizatu batean oinarritutako jolas bat da, eskuak edo beste objektu batzuk argi-iturri baten eta gainazal argi baten artean jartzean lortzen dena; horrela, eskuen edo objektuen posizioek eta mugimenduek itzalak proiektatzen dituzte. Honek artearen adibide zaharrenetako bat osatzen du. Gizakiek bere haitzuloko suaren aurrean, sinbolo magiko gisa, txinatar itzalen jokoa erabiltzen zuten, imajinariotik errealera eramateko aukera bezala.

## "itzal artean jolasean"

### **“Jolasa motorra da, ikaskuntza aktiborako, hausnarketarako, indibidualtasunetik kolektibora”**

Itzal txontxongiloak tailerra proposamen ludiko-pedagogikoa da. Gure ustez, itzalen txotxongiloak tresna sortzailea dira, genero berdintasunaren inguruan hausnartzeko aukera ematen dutenak. Genero berdintasunari buruz ikuspuntu eta iritziak konpartitzeko tresna bat da; itzala anonimoa, isila eta diskretua baita. Prozesuan parte-hartzaileek txontxongiloak sortzen eta erabiltzen ikasten dute, analisi eta hausnarketa sustatzen den bitartean; baita ezagutza eta autoestima indartzen diren bitartean ere.

### **Indibidualtasunetik kolektibora**

“Nigandik, gugana”. Prozesu esanguratsua da, elkarrekiko errekonozimenduaren aldeko apustua, gizartearen kolektibismoaren aldeko apustua, non gizakiok gure burua ezagutzen, baloratzen eta errespetatzen dugun, bai indibidualki bai kolektiboki.

# Lehenengo eszena - Amurrio

## Lehen eguna

Egunero da istorio berri baten hasiera. Hau, Amurrioko Kultur Etxean hasten da.

Aurkezpenak osagai garrantzitsuak dira horrelako jardueretan, parte-hartzaileek eta bideratzaileek elkar ezagutzeko aukera dute, eta hortik abiatuta, komunikazio-bideak ezartzeko aukera. Aurkezpenen ondoren parte-hartzaileei azaldu zitzairen zer egingo zen eta nola. Genero berdintasunaren inguruan hitz egin genuen, zer zen, zer sentitzen genuen... gai erronkagarria da, hausnarketara gonbidatzen gaituena. Txontxongiloei buruz ere hitz egin genuen, nola hauek genero berdintasunaren inguruan hausnartzen lagun gaitzaketen.

Hala, itzal txontxongiloren mundura hurbilketa bat egiteko, Fulano zizarea aurkeztu zen. Ametsetan sortu den itzal istorioa.

Fulano zizarea zelaiean barrena dabil, beti bezala topatzen den insektu guztiekin alai hizketan. Batzuetan, gauetan amets egiten duela kontatzen die.

Bai, amets egiten du.

Jirafa bat dela egiten du amets.

Jirafa altu eta serio bat, bere lepo luzearekin,

bere hanka luze eta eleganteekin

eta bere begiekin, handi-handiak!

- Begira, jirafa bat naiz! Esago luke Fulanok. - Ikusiko duzu. Jirafa batean bihurtuko naiz. Bai, bai, jirafa-zizare bat. Ez, ez, oraindik hobe: *zizarafa* luze eta elegante batean.- Esan zion hunkituta zelaian zegoen armiarma bati.

Jarraian, parte-hartzaileak hausnarketara gonbidatu genituen. Zer pentsatzen duzue entzundakoaz?

Fulano beraiek nahi duten bezalakoa izatea nahi dute, ez Fulanok nahi duen bezalakoa

Besteek ez diotela nahi duena izaten uzten



Ez dutela ulertzen

Fulano nahi duen bezalakoa izan daitekela

Fulano errespetatu behar dutela





Hausnartu ondoren, lanean hasi ginen. Gaur parte-hartzaileek genero berdintasunaren inguruko istorio bat idatzi edo marraztu beharko dute.

Eta emaitza bezala:

### **Marcos basurdea istorioa.**

Bazen behin Marcos izena zuen basurde bat. Marroia zen, baina berak beste kolore batzuetakoa izan nahi zuen.

Egun batean Tomas izeneko ardi batekin topo egin zuen, eta ardiak Tomasi esan zion marroia izan behar zuela. Beste basurdeek ere berdina esaten zioten.

Egun batean, Marcosek mahasti bat aurkitu zuen, mahatsak hartu eta jan beharrean, bere azalean igurtzi zituen, morea izatea lortu arte.

Basoko erregeak, Joy lehoiak, ikusi zuenean, kolore morea kentzera derrigortu zuen.

Marcos bidean zihoan eta beste animalia batzuekin topatu zen: oreinak, untxiak... baina egun hartan ez zuen hitz egiteko gogorik.

Triste, basoko leku ezezagun batera joan zen, eta kolore askotako lore-dun zelai bat ikusi zuen. Zapaltzen bazituen kolore pila bat lortuko zituela konturatu zen, eta urarekin nahastuz, koloreak azalean jartzen bazituen, koloreduna izango zela.

Hala, animaliek ikusi zutenean, kentzeko esan zioten Marcos basurdeari, baina hark ez zuen kasurik egin. Beste animaliei arraroa eta harrigarria iruditzen zitzaien bere itxura, ortzadar bat bezalakoa baitzen.

Azkenean basoko beste animaliak ere azala margotzen hasi ziren, denak koloredunak izan arte.

Lehenengo eguna bukatu zenean, zer iruditu zitzaien jakin nahi izan genuen.

Nire ama eta biok beti parte hartu izan dugu Zuhatzako antzerkian, baina ez nuen itzalen kontua ezagutzen

Gustatu egin zitzaidan, ez nekien itzalen txontxongiloak nola funtzionatzen zuten

### **Eta hasi da abentura**



*Txontxongiloak magikoak dira. Sortu, eraldatu eta amets egiten dute.*

## Bigarren eguna

- Ixildu, ixildu baldar!

Zer da jirafa izatearen hori,  
ez dut ezer ulertzen.

Zizare bat zara ala ez? - esan zion armiarmak seriotasunez.

- Nik dakidanez zizareak tximeleta bihurtzen dira, ez jirafa.

Eta ezta... zuk esaten duzun *Zizarafan* ere. - esan zuen armiarmak,  
desagertu aurretik.

Interbenziorako tresnetan pentsatzen dugunean, gutxitan hartzen dugu artea kontutan. Antzerkia, txontxongiloak... txontxongiloekin lana egitea, jolastea, konplexutasunak gainditzeko dituzten, jakinmina esnatzen du, komunikazioa hobetzen du eta imaginazioa estimulatzen du. Txontxongiloekin lan egitea imaginarioarekin lotuta dago, bai sortu edo erabiltzen duenarenarekin; baita ikusle bezala dagoenarekin ere. Hor datza sormen-jokuaren elkarrekikotasuna.

Fulano zizarearen istorioa proposamen bat da, joku bat, mezu bat; generoari, eskubide eta obligazioei, errespetuari, tolerantziari, onarpenari, aldaketari, erabakiei eta elkar-ulertzei buruz hitz egiteko eta hausnartzeko erabiltzen dugun tresna bat, estereotipoak gaindituz.

Bigarren egun honetan genero berdintasunaren inguruan mintzatu genuen. Geure burua nola ikusten dugun komentatu genuen; baita nola uste dugun besteek ikusten gaituztela. Nola sentitzen garen ere aztertu genuen, baita elkar-ikusten, sortzen, sinesten eta fidatzen ikasi ere.

Gure pertsonaiak sortzen hasi ginen, nola imajinatzen genituen pentsatuz. Ze itxura duten; zer esaten duten; zer egiten duten eta zer sentitzen duten. Helburua genero berdintasunaren inguruan hausnartzea zen, autoestima landuz. Txontxongiloen diseinuan eta egitean aritu ginen, eta sortu genituen istorioak berrikusi genituen.

Jolasa garapen integrala errazten duen jarduera naturala da; horregatik, egile askoren ustez, beharrezkoa da hezkuntza-esparruan erabiltzea, funtsezko ikaskuntzak eta trebetasunak eskuratzea sustatzen duen tresna gisa.

Horregatik, jolasa funtsezko printzipio metodologiko bihurtzen da Haur Hezkuntzako etapan, non haurra izan behar den irakatsi eta ikasteko prozesuaren protagonista, ezagutzak eraikiz. Sorkuntzan, manipulazioan, zuzeneko behaketan, esplorazioan, mugimenduan, zentzumenen erabileran eta esperimenduetan oinarrituta, jolasa horretarako estrategia didaktiko ezin hobea izanik.

Ipuin batek, pertsonaia batek, paperean islatutako ideia batek, abentura baten, jolas baten, indibidualtasunetik kolektibotasunera ikastearen hasiera irudikatzen du. Autoestimua sendotzen du, baita sormena indartu ere. Konfiantza pertsonal eta kolektiboaren garapenari laguntzen dio.

## Hirugarren eguna

Beste batzuetan, Fulano zizareak arrain bat dela amesten du.  
-edo txori bat dela-.

Fulano zizareak amesteari buruz asko baitaki.

- Kakalardo, ikusiko duzu arrain bihurtzen naizenean.  
Denek ikusiko naute akuatikoko, distiratsu, hegats berriekin.

- Imajina ezazu, ezkatadun zizare bat,  
zelaian denak hitz egingo dute nitaz - esan zuen emozioz beteta.

Urduritasuna da prozesuari abiadura ematen dion estimulua. Saioari hasiera emateko, aurreko saioetan ikusitakoaren errebaso orokorra egin genuen, genero-berdintasunaren gaiaren aurrean sentitzen genuenari buruz hitz egin genuen, eta gure txotxongiloek azken saioiko ikusleengan eragitea espero genuenari buruz ere galdetu genuen.

Gustatuko litzaidake anaia nagusiek ikustea, antzerki-aurkezpenak egiten baititugu  
Zuhatzan, eta gustatuko litzaidake hurrengo urtean jaietarako horrelako zerbait egitea

Nik uste dut gustatuko zaiela, ez baitituzte ezagutzen

Nik kontatu diet zer egiten dugun

Eta genero-berdintasunaz galdetzen dugunean:

Beti errespetatu behar dugu elkar, elkar errespetatzen ez dugunean jendea gaizki portatzen baita

Neskak eta mutilak berdinak dira, denok egin dezakegu gustatzen zaiguna eta ez utzi besteei gehiegikeriak egiten

"Haurrek ulertu behar dute berdinak garela, ez dela desberdintasunik egin behar

Gure txotxongiloen amaieran ere lan egin genuen, gure istorioen narratiba jarraituz. Txotxongiloak mugitzen ikasi genuen, antzerkigintzan lan egiten ausartu ginen, argiak, itzalak eta mugimenduak erabiltzen.

Zer ikasi dugu?

"Ikastea ezagutza, trebetasun, balio edo jokabide berriak eskuratzea da"

Txotxongilo itzalen tailer honetan, ondorengoa ikasi dugu: hausnarketa-prozesu batean parte hartzeak, elkarrizketarako espazio batean, sortzen eta birsortzen emandako denbora batean, jolasetik, irudimenetik errealera, haurren trebetasunak eta trebetasunak indartzen ditu, komunikazio-kanalak sortu eta/edo hobetzen ditu, interakzioa eta desinhibizioa estimulatzeko.

## Laugarren eguna

- Aizu, mutil, erotuta zaude edo zer?  
Zer da arrain izatearen hori?  
Ez dut ulertzen,  
benetan, ez dut ulertzen. - Erantzun zion kakalardoak, zerbaiten bila zebilen bitartean.

## Izan ere, ikasten ez duen bakarra nahi ez duena da.

Prozesuari dagokion amaiera eman nahi genion, itzalen txotxongiloen aurkezpen baten bidez. Parte-hartzaileek sortu eta prestatu zituzten, beraien senide eta lagunei zuzenduta.

Zer egin genuen? - Sortutako istorioei buruz hitz egin genuen, genero berdintasunaren gaia jorratzen zutela azalduz, tolerantziaz, errespetuaz, pertsona bakoitzaren eskubide eta betebeharez.


itzalen magia, "itzalek ez baitute generorik". Istorioen irakurketa orokorrak egin genituen, mugimenduak errepasatu genituen, antzezpenen aurretik entseguak egin genituen, lantaldeetan koordinatu ginen eta antzezpenerako aretoa prestatu genuen.

Arratsaldeko 19,20ak iristean, egongelan sartzeko gonbitea luzatu genien senideei. Ongietorri hitzak eman genizkien, aurkeztu egin ginen eta tailerraren joan-etorriak azaldu genizkien. Orduan, entzuleei buruz ere jakin izan nahi genuen.

Hala, tailerra kartel baten bidez ezagutu zutela esan ziguten; haurra oso motibatuta egon zela; gustatu zaiela...

Zer ikasi dugu?

Konfiantza beldurrak uxatzen dituen estimulu bat dela; sinpletasuna hiztegi infinitua dela; irribarre egiteak eta jolasteak elkarrizketa ahalbidetzen duela, konfiantza pizten duela; jakin-mina ikasteko ezinbestekoa dela.



# Bigarren eszena - Audio

## Lehen eguna

Non? Audioko Udal Liburutegian.

*"Gizakiaren tresna ezberdinetatik harrigarriena, dudarik gabe, liburua da. Gainerakoak bere gorputzaren luzapenak dira: mikroskopioa, teleskopioa; telefonoa ahotsaren luzapena da; gero goldea eta ezpata ditugu, bere besoaren luzapenak. Baina liburua beste gauza bat da: liburua oroimenaren eta irudimenaren luzapen bat da".*

Jorge Luis Borges.

Istoria honek honela jarraitzen du:

- Baina, ez al duzu ulertzen?  
Arrain-zizare bat izango naiz,  
uretako errege.  
Ikusiko duzu, erreketan barrena bidaiatuko dut,  
baita lakuetan eta itsasoetan ere.  
Igarabak bezala egingo dut igeri, edo  
baleak bezala, edo agian izurdeak bezala,  
azkar eta elegante. - Esan zuen Fulano zizareak, emozioz beteta.

## **Beti baitago zerbait berria deskubritzeko.**

Itzal-txotxongiloen antzerkiak aukera didaktiko ugari ditu, eta aukera horiek zuzenean aplikatu dakizkieke genero-berdintasunaren sentsibilizazio prozesuei. Itzalen proiektzioa jolas dramatiko bat da, eta aukera ematen du egoera, pertsonaia eta irudi oso sortzaileak iradokitzeke, haurren iruditeria garatuz.



Itzalen antzerkiak garapen integrala ahalbidetzen duten aukeren mundu amaigabea irekitzen du, hainbat alderdiren bidez lana eginez, hala nola: gorputz-adierazpena, espazioa, denbora, koordinazioa, komunikazioa, mugimendua... baita jarrera ere lantzen da: talde-lana, desinhibizioa, norberaren mugimenduarekiko zaletasuna, nork bere burua gainditzeko grina eta autokritika.

"Itzala den bezala hautemana izan da, baina ez da, existitzen da, baina desagertu egiten da, ez du gorpuzdun izaerarik, ikusmen hutsekoa da, irudimenaren jolas baten edo amets baten antzekoa" Carlos Angoloti.

Gertatu ohi da lehenengo eguna ia susmagarria dela. Parte-hartzaileek eta bideratzaileek ez dakigu oso ondo norekin egingo dugun topo. Dakiguna da txotxongilo-tailer bat gutxienez bitxia edo dibertigarria izango dela...

- Aizu, anai,  
ez zara konturatzen edo zer?

Zu zizare bat zara, eta zizareak  
lurrean bizi edo tximeleta bihurtzen dira.

Nik dakidala, ezer gehiago ez. - Esan zuen kakalardoak, adar batetik  
gora igotzen saiatzen ari zen bitartean.

Ondoren, haurrei txotxongiloak eta antzezlaritza aurkeztu zitzaizkien. Gero, parte-hartzaileei eskatu zitzaien bakoitzak genero-berdintasunari buruz hitz egiten zuen istorio bat sortzeko; istorio bakoitzetik pertsonaia bat edo gehiago identifikatzeko; eta pertsonaia marrazteko.

Amaitzeko, saioan ikusitakoaren errepaso orokorra egin genuen.

## Bigarren eguna

Saioa hastean ongietorri-hitzak eman genituen jarduerari hasiera emateko. Orduan aurreko egunean ikusitakoaren laburpen bat egin genuen, genero-berdintasunaz eta errespetuaz hitz egin genuen, haurrek eskubide eta betebeharrak berberak dituztela nabarmenduz. Desberdintasunez ere hitz egin genuen, desberdin sentitzeak zer esan nahi duen, gure ustez ondo dagoenaz edo gaizki dagoenaz...

Gero irakurketa kolektiboko ariketa bat egin genuen, parte-hartzaile bakoitzak bere historia irakurri zuen.

Istorio hauek kontatu zizkiguten:

### "Haur zoriontsua"

Markos izeneko haur bat arazo desberdinengatik ikastetxez aldatu behar izan zen. Haurra ez zen ondo sentitzen eskolan, eta gurasoekin eta gainerako jendearekin hitz egin ondoren, laguntza eskatu zuen eta lagundu egin zioten.

### "Amaiera zoriontsua"

Behin neska lesbiana bat leku berri batera joan zen bizitzera. Eskola hasi zen eta urduri zegoen, ez zekielako nola erantzungo zuten ikaskide berriek neskak gustatzen zitzaizkiola jakitean... - Sorpresa! -, oihu egin zuten denek. "Ni oso hunkituta geratu nintzen, hasieran nire beste ikastetxean bezain gaizki tratatuko nindutela pentsatu nuen eta".

## **"Ikastetxeko haurrak"**

Behin bazen Paula izeneko neska bat, bere ikastetxeko jolaslekuan futbolean jolastu nahi zuena, baina hurrek ez zioten futbolean jolasten uzten.

## **"Jantzien borroka"**

Bi lagun eta haien maskoten istorioa zen. Maskotek elkarrekin jolasten zuten bitartean, lagunek bata besteari kentzen zion arropa bategatik borrokatzen ziren. Orduan maskotak triste jartzen ziren, baina lagunek elkarren artean barkamena eskatzeko antolatu ziren.

## **"Puxika jaunaren historia"**

Bazen puxika bat Martinen laguna zena. Puxika jaunak ez zuen inoiz itsasoa ikusi eta nola zen jakin nahi zuen. Martinek Nerea bere lagunarengan pentsatu zuen, denak batera joan zitezkeen bizikleta bat baitzuen. Orduan, udako arratsalde batean, hirurak itsasoa bisitatzera joan ziren, eta horrela bete zuen puxika jaunak bere ametsa.

- Baina, zer gertatzen zaizue?

Zergatik zarete hain aspergarriak?

Ez al duzue inoiz amets egiten? - Oihukatu zuen haserre zizareak.

- Ixil zaitez! Utz gaitzazu lo egiten!- Oihukatu zuen mariorratzak.

Istorioen irakurketa amaitu eta pertsonaiak definitu ondoren, parte-hartzaileek txotxongiloak eraikitzeari ekin zioten. Pertsonaiez hitz egin genuen, gertatzen zaienaz, beste pertsona batzuek ikusiko dutela uste genuen moduz... Urduritasuna ematen zigula konturatu ginen, baina baita emozioa ere.



Baina fulano zizarea  
ez da desanimatzen

beti gogoratzen du  
zizare txiki bat zenetik  
txiki txikia!  
beti izan duela amets bat...

dragoi izateko ametsa  
bai, munduko lehen zizare-dragoia

handi eta indartsua  
hegal handiekin  
oso handiak!  
leku guztietan zehar hegan egiteko

berak pentsatzen baitu  
goitik begiratzea ez dela  
beitik begiratzea bezala  
beitik dena oso handia ikusten baita  
baina goitik, dena txikia ikusten da,  
bera baina txikiago!

- Dragoi izaten denean  
zizadragoia izango naiz,

Fulano zizadragoia! - Esan zuen bere baitan

## Hirugarren eguna

Bakoitzak izan nahi edo sentitzen duena izatearen garrantziaz, gustuez, beste batzuek desberdin gisa ikusteak eragiten digunaz... mintzatu genuen.

Parte hartzaileek pertsonaiak landu zituzten, gure txotxongiloak artikulatzen eta maneiatzen ikasi genuen. Parte-hartzaileek beren istorioetako musika aukeratu zuten.

Txotxongiloak amaitu ondoren, istorio bakoitza muntatzen hasi giñen. Entsegu orokorrak egin genituen eta parte-hartzaileek aurkezpenen ordena definitu zuten.

Baina Fulano zizarea  
lore handi baten bila  
hainbeste ibiltzean  
askotan begiratu ondoren

- bai, bai, hemen  
hemen da  
azkenean, hau da- esan zuen emozioz beteta.

eta lorearen zurtoinetik  
igo zen pixkanaka  
baina hainbeste igo eta gero  
hain nekatuta geratu zen  
lehenengo adarren lo geratu zela.

Istori guztien irakurketa orokorra egin genuen eta asteleheneko aurkezpenerako antolatu ginen.

## Laugarren eguna

Azken eguna da, eta horrek esan nahi duen guztiarekin, bai haurrentzat, bai talde bideratzailearentzat ere. Partekatzeko lau egun izan dira, komunikazioa, errekonozimendua eta autoerrekonozimendua erraztuz.

Autoezagutzak barne hartzen du, besteak beste, gure sentimenduak eta pentsamenduak ulertzea, gero gure portaera ulertzeko. Gure motibazioak, balioak eta iritziak ezagutzearekin ere badu zerikusia.

Eta horrela pasa ziren  
haize eta euriak  
gau eta egunak  
armiarma eta mariorratzak  
moskito eta kakalardoak  
eta bertan bizi ziren bitxito guztiak

egun batean, inor konturatu gabe,  
krisalida mugitzen hasi zen arte.

Aurkezpenerako azken prestaketak egin genituen, txontxongiloak berrikusi, istorioak errepasatu. Elkar laguntzeko koordinatu ginen eta entsegu txikiak egin genituen. Lantegiko lau egun hauetan ikasitakoari buruz hitz egiteko aprobeztatzen dugu. 19:20 etan ikusleak iristen hasten dira.

Lehen istoria - "Jantzien borroka"  
Bigarren istoria - "Amaiera zoriontsua"  
Hirugarren istoria - "Familia zoriontsua"  
Laugarren istoria - "Eskolako haurrak"  
Bosgarren istoria - "Globo jaunaren istoria"

**Deskubritu genuena:** talde-lanak eta koordinazioak enpatia sortzen duela, autoestimua hobetzen duela, sormena suspertzen duela. Norbere burua indartzeko tresna gisa egokia dela. Ikasi dugu, halaber, "istorio guztiak ez direla errazak", "askotan hizkuntza motz geratzen dela". Bakoitzaren konplexutasunak gorabehera, taldean beti errazagoa dela. Halaber, irribarrea sormenerako pizgarria dela ere ikasi dugu. Itzalen txotxongiloen obraren aurkezpenak, euskaraz egindako Fulano el Gusanok, euskararen erabilera modu sortzaile, ludiko eta berritzailean indartu eta dinamizatzea ahalbidetu zuen.

**Ez utzi ikastez, bizitzak irakasten jarraituko du eta!**



## Hirugarren eszena - Urrunaga


Bertako bizilagunek kontatu zigutenez, Urrunaga beti izan da nekazal eremua, -jende gehienak lurra lantzen zuen-. Baina Urrunagako urtegia sortu zenean, bizilagunek esan zutenez, lurra lantzeari utzi zioten-, eta horrekin batera bertako populazioa ere murriztu egin zen. Garai hartan hirurehun pertsona pasatxo baitziren, baina gaur egun populazioa ez da ehun eta hogeit hamar pertsonatik gorakoa. Urrunaga isil eta diskretu ageri da, baina bere barruan komunitate bizi eta aktiboa du.

Denborak beti markatzen du ezberdintasuna. Lau orduko tailerrak ez dira errazak, haur talde bat kontzentratuta mantentzea erronka bat baita.

Bai, bera zen, Fulano zizarea,  
jaiotzeko ahaleginetan zebilena

Lehen ikusi zena hanka bat izan zen,  
pixkanaka mugitzen hasi zena.  
Bestea ondoren etorri zen.

Hala, pausoz pauso  
jaiotzen ikusi zen,  
tinko, serio, haur jaioberri baten moduan  
mugitzen hasi zen...



## Lehen eguna

Bertaratutako guztien aurkezpenak egin ondoren, Genero Berdintasunari buruz hitz egiten hasi ginen, gure erabaki eta ekintza bakoitzaren eskubideez eta betebeharez hitz egin genuen, baita besteak berdintasunean ulertzeak esan nahi duen erantzukizunaz.

Ondoren, txotxongiloei buruz hitz egin genuen, itzalei buruz, irudimenari buruz eta gu adierazteko garrantziari buruz. Haurrek "Fulano zizarea" itzalezko txotxongiloen obra ikusi ahal izan zuten. Aurkezpena amaitu ondoren, istoria zer iruditu zitzaien galdetu genien.

Erantzunak:

Zerbait izan nahi zuela, baina besteek ez zutela uzten

Beste zerbait izan nahi zuela eta besteek ezetz esaten ziotela

Hegan egitea amesten zuela eta barre egiten ziotela

Ez zutela lasai uzten

Ez dagoela ondo traba egitea

Gero, gure sorkuntza-prozesuari ekin genion. Hasiera batean, bi lantaldetan antolatzeko eskatu genien haurrei; hala, handien taldea eta txikien taldea sortzea adostu zuten. Taldeka antolatu ondoren, talde bakoitzak genero berdintasunaz hitz egiten zuen istorio bat sortzeko eskatu genien, eta horrela sortu ziren "La oveja Carmen busca ayuda" eta "Jose Maria de Asunción, un dragón Maligno" filmen istorioak. Istorioak sortzeko prozesua amaitu ondoren, itzalen txotxongiloak eraikitzen hasi ginen.

Eskuzko lana beti da jarduera bizigarria handientzat eta txikientzat; imajinatzea, marraztea, koloreztatzea, ebakitzea, artikulatzea, itsastea, imajinarioa estimulatzeko duten jarduerak dira.

Haurrek txotxongiloak amaitu zituztenean, minutu batzuetako arreta eskatu genien, istorio bakoitza lagunduko lukeen musika aukeratzeko, eta hurrengo eguneko jarduerarako antolatzeko.

Horrela, adar batean geldi,  
mugimendu xuabeekin  
bere hegadak zabaldu zituen

eta jakinmin asko, askorekin, pixkanaka behatu zituen.

Lau ordu asko dira, baina baita gutxi ere, sormenaren eta aurkikuntzen artean minutuak labur egiten dira eta. Konturatu gabe, amaitzeko ordua da. Hala, jarduarari buruzko iritzia galdetu genien.

1. "Gustatzen zait, dibertigarria da"
2. "Nik ez nekien nolakoak ziren itzalak"
3. "Nirea egin nahi dut ikusteko"
4. "Gustatzen zait koloretako argiak eta beste gauza batzuk jar diezazkiokegulako"

Arratsaldeko zortziak izanik, eta lurraldean egiten duen hotzarekin, parte-hartzaileak agurtu genituen.

## Bigarren eguna

- Dragoi bat naiz!

Dragoi bat naiz!

Azkenean, hegan egiten duen dragoi bat naiz!- Oihukatu zuen emozioz beteta.

Bigarren eta azken saioari hasiera eman genion, eta dagozkion agurrekin ekin genuen jarduera. Ondoren, berdintasun eta desberdintasunez hitz egin genuen, eta gogoeta egin genuen genero-desberdintasuna adierazteko modu desberdinei buruz eta horien aurrean sentitzen garen moduari buruz, ondo dagoenari buruz eta ondo ez dagoenari buruz; baita hurrek iritzia emateak duen garrantziari buruz ere.

Tailer bat ixteak, ziklo bat bukatzeak, beti adierazten du prozesu desberdin bat, abentura bat irudikatzen du, desafio bat, era batera edo bestera agerian uzten du hausnartutakoa, bizitakoa eta ikasitakoa.

Lantaldeetan antolatu ginen, egongela ilundu, mahaiak mugitu eta aulkiak jartzeko, egongela txukundu eta garbitzeko. Txotxongiloak prestatu genituen, azken entseguak egin genituen, soinua eta argiak probatu genituen, eta konturatu gabe 13:30ak ziren.

- Geldi zaitez,

tximeleta bat zara - erantzun zion oihuka.

Gurasoak, lokalaren kanpoaldean zeuden zain; behin antolatuta, pasatzera gonbidatu genituen.

Kontatu nahi izan genien bi lanegunetan egindakoa, baita beraien seme-alabek eraikitako istorioak ere.

### **"Carmen ardia laguntza bila"**

Egun batean, Carmen ardiak eta bere lagun zaldiak antzerkira joan nahi izan zuten, baina Filiberto trikuak ez zien sartzen uzten neskek zirelako. Karmen ardiak, oso triste eta gogaikarri, laguntza eskatu zuen, eta Ponponcina untxia aurkitu zuen. Hau, Filiberto trikuarekin hitz egitera joan zen, eta ordubete baino gehiago eman zuen neskek eta mutilek eskubide eta betebeharrak dituztela azaltzen. Orduan Filibertok ulertu eta sartzen utzi zien, eta horrela denak zoriontsu izan ziren elkarrekin dantzan.



## **"Jose Maria de Asunción, dragoi gaiztoa"**

Egun batean, Maria Dolores Cabezas Calva behorra eta Rodolmino Eurotencio azeria, haurtzaroko lagunak, belardian paseoan zihoazela, "Jose Maria de Asunción, el dragón maligno" aurkitu zuten. "Jose Maria de Asunción el dragón maligno" agertzen zenean, zerua gorri jartzen zen. Horrela dragoia haien aurrean jarri zen eta Rodolmino Eurotencio azeria eraman zuen. Geroago, dena normaltasunera itzuli zen, egun batean "Jose Maria de Asunción el dragón maligno" behorraren aurrean berriro agertu zen arte. Maria dolores cabezas calva, eta bere lagunak "Maria Auxiliadora de la trinidad" untxia, lasai zebiltzan belardian.


Dragoiak buruko mina eman nahi izan zion Mariari, baina bere lagun Maria Auxiliadora de la trinidad untxiak hori ez egiteko esan zion. Dragoiak barre egin zion, hain txikia eta ahula izateagatik, baina untxiak ur izpi bat bota zion, dragoia akabatuz. Ondoren, Rodolmino Eurotencio azeria agertu zen eta hiru lagunak paseo bat ematera joan ziren Dragoia garaitu izanagatik.

## **Zer nahi dugu?**

Neska-mutilek, beren ikuspegitik, genero-berdintasuna nola hautematen eta ulertzen duten erakustea. Nola sentitzen diren jakin nahi dugu. Haien istoriei, esperientziei, ezagutzei buruz hausnartzea bilatzen dugu. Ahots guztiek dutelako zerbait esateko, eta belarri guztiek zerbait entzuteko.

Baina Fulano zizarea  
ez da desanimatzen  
eta emozioz beteta  
hegan hasi zen

eta hau da fulano zizarearen istoria  
tximeleta bihurtu zena.



Gure esker on bereziak prozesu hau errealitate bihurtzen lagundu duten guztiei. Amurrio, Urrunaga eta Laudioko Udalei; Arabako Foru Aldundiari; Nazioarteko Elkartasunari; esperientzia honetan gurekin egon diren gurasoei; parte hartu duten haurrei, eta istoria modu batera edo bestera sinetsi eta babestu duten guztiei.

Eskerrik asko.

Gu, betikoak.

*"Bizitzaren izaeran bertan pentsatzen baduzu, hau da, hasieratik, bi zelulatan banatzen den lehen zelularen garapenean, bizitzaren helburu bakarra partekatzea izan da, ikasitakoa transmititzea.*

*Ez dago helburu handiagorik".*

(Morgan Freeman, Lucy 2014)



Esta publicación gira entorno a los talleres de Títeres de Sombras para la Igualdad realizados en Amurrio, Laudio y Urrunaga

**Ivan Erik Jamett**

Dinamizador del taller Títeres de Sombras para la Igualdad



Arabako Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Álava

No hace mucho tiempo atrás... allá por donde termina el viejo prado, se ve a fulano el gusano, que siempre va soñando y cantando,  
en qué se transformará cuando deje de ser crisálida...

porque fulano el gusano, es un Bichito con mucha, pero mucha, imaginación.

## **Y así empieza esta historia**

### **Contexto**

Los talleres de Títeres de Sombras para la Igualdad de Género se han realizado dentro del proyecto "Tolerancia 0: Rompiendo con las desigualdades ante la discriminación y los estereotipos de género", financiado por la Diputación Foral de Álava.

Así, los talleres han estado dirigidos a población alavesa de 6 a 12 años y se han realizado en Amurrio, Llodio y Urrunaga. El programa lúdico se ha organizado en cuatro sesiones de 2 horas, siendo en total ocho horas por cada ciclo. Así, en el conjunto de los tres municipios se han impartido 24 horas. En estas se ha propuesto el empleo de los títeres de sombras como mecanismo para promover la Igualdad de Género.

### **Objetivo**

- Generación de un proceso creativo de sensibilización y socialización de la Equidad de Género, a través del uso lúdico, creativo y novedoso de los títeres de sombras
- Desarrollo y uso de herramientas técnicas que aporten a la reflexión y socialización de la Equidad de Género, y reafirmen la creatividad y la autoestima, elementos que son fundamentales en el desarrollo humano.

*"El títere proporciona al niño un juego, una cubierta, un disfraz que permite; que un niño tímido encuentre el coraje de hablar, de expresar sus propias emociones y de abrir su imaginario al títere y a través de él, a la audiencia. De esta manera el títere ayuda al niño a comunicarse de manera más espontánea, evitando situaciones estresantes, El títere es una autoridad creada y elegida por el propio niño".*

Livija Kroflin Julio 2015

## Metodología

Cuando se planificaron los Talleres de Títeres de Sombras para la Igualdad, se habló de contenidos, de objetivos, de metodologías. Evaluamos cantidad de participantes para realizar una atención adecuada, hablamos de materiales, la cantidad de tiempo necesario para crear y aprender a usar un títere de sombras. Así los días volaron como la imaginación, porque el tiempo no entiende de preparativos.

En cuanto a la metodología de los talleres, se planificó para ser una experiencia horizontal, vivencial, activa y participativa. En donde los y las participantes adquieran herramientas técnicas y habilidades en la construcción, manejo y uso de títeres de sombras. Se divide en las siguientes fases de trabajo:

### **Fase 1: Introducción: presentación objetivos y metodología**

- Introducción y presentación de la actividad.
- ¿Qué es la Equidad de Género?
- Muestra interactiva de títeres de sombras.

### **Fase 2: trabajo de mesa**

- Elaboración de textos basados en la Equidad de Género e identificación de personajes.
- Elaboración de títeres de sombras.
- Uso y manejo de títeres de sombras. Y montaje de obras de títeres creados por los y las participantes.

### **Fase 3: Muestra del proceso creativo**

- Muestra del trabajo realizado.
- Presentación de títeres de sombras creadas en el proceso.

### **Fase 4: Resumen del proceso vivido por las participantes**

- Realizar un resumen narrativo de la actividad.
- Entrega de la memoria y resultados del proceso vivido.

## Cronograma de actividades



### **Amurrio**

18 de septiembre, de 18:00 a 20:00  
20 de septiembre, de 18:00 a 20:00  
22 de septiembre, de 18:00 a 20:00  
25 de septiembre, de 18:00 a 20:00

### **Llodio**

25 de octubre, de 18:00 a 20:00  
26 de octubre, de 18:00 a 20:00  
27 de octubre, de 18:00 a 20:00  
